

AURREKONTUA AZALTZEKO MEMORIA

1.- EGOERA EKONOMIKOA

2021eko ekitaldian Udalak izango dituenduru-sarrereren eta gastuen aurreikuspenak jaso behar ditu eta erakundearen plangintza ekonomikoarenoinarrizko dokumentua da. Bestalde, finantza-jardueraren gardentasuna bermatzeko eta haren fiskalizazioa eta kontrola baimentzeko araudiak ezartzen dizkion helburuak bete behar ditu.

Dirusarrereren eta gastuen egoerak orekatuta ageri dira eta naiz eta egonkortasun helburua betetzen ez duen, hala ere 9/2020 foru dekretu arauak ezartzen duen defizit helburuaren azpitik dagoenez, Azkoitiko Udala ez da behartuta egongo plan ekonomiko finantzario bat egitea

2021/12/30eko zorpetzea 5.106.188,38€takoa izango da, 2020ko aurrekontuaren aurrelikidazioaren sarrera korronteen %39,04; beraz, esan dezakegu Azkoitiko Udalak egoera sanotua duela. Aurreko urtearekiko igoera dago, 2020ko abenduan 1.800.000€ko mailegua onartu delako

Mailegu berria aurreikusten da 2021eko ekitaldirako, 1.242.140,00€ €koa hain zuzen, 2021erako Udal aurrekontuak, 2020ko aurrekontuen oinarritzko egitura mantentzen du.

Organoka sailkatuta aurkezten da, eta bakoitzak kudeatzen dituen programen kopuruak guztira hauek dira, 2020ko aurrekontuarekin alderatuz.

BATZORDEA / COMISION	2020	2021
OGASUNA ETA PERTSONALA, GUZTIRA /TOTAL, HACIENDA Y PERSONAL	5.963.852,79	6.255.531,14
HIRIGINTZA , GUZTIRA / TOTAL, URBANISMO	808.000,00	541.100,00
KIROLAK ETA FESTAK, GUZTIRA / TOTAL DEPORTES Y FIESTAS	1.010.500,00	1.179.900,00
KULTURA ETA GAZTEDIA, GUZTIRA/TOTAL, CULTURA Y JUVENTUD	1.122.300,00	1.130.150,00
HEZKUNTZA ETA EUSKARA, GUZTIRA / TOTAL, EDUCACION Y EUSKARA	367.255,00	342.255,00
GIZARTE ONGIZATEA, BERDINTASUNA, INMIGRAZIOA, GUZTIRA / TOTAL, BIENESTAR SOCIAL, IGUALDAD, INMIGRACION	1.214.125,00	1.254.455,00
ALKATETZA, GUZTIRA / TOTAL ALCALDIA	113.000,00	123.000,00
LAN ETA ZERBITZUAK, GUZTIRA / TOTAL, OBRAS Y SERVICIOS	2.273.300,00	2.270.300,00
UDALTZAINGOA, GUZTIRA / TOTAL, POLICIA MUNICIPAL	44.000,00	45.500,00
INGURUMENA, GUZTIRA / TOTAL, MEDIO AMBIENTE	1.817.898,91	1.689.302,00
SUSTAPEN EKONOMIKOA, GUZTIRA/TOTAL, PROMOCION ECONOMICA	375.768,30	413.506,86
GUZTIRA / TOTAL	15.110.000,00	15.245.000,00

	2020	2021	Incremento 2020-2021
1.Kapituloa/Capitulo 1	4.561.568,72	4.828.403,83	%5,85
2. Kapituloa/Capitulo 2	4.782.855,00	4.925.155,00	%2,98
3.Kapituloa/Capitulo 3	62.865,40	43.272,87	-%31,17
4.Kapituloa/Capítulo 4	3.748.292,21	3.759.213,86	%0,29
5, Kapituloa/Capítulo 5	20.000,00	20.000,00	%0,00
6.Kapituloa/capítulo 6	1.261.000,00	975.100,00	-%22,67
7. Kapituloa/Capítulo 7			
8.Kapituloa/Capítulo 8	9.000,00	12.000,00	%33,33
9.Kapituloa/Capítulo 9	664.418,67	681.854,44	%2,62
GUZTIRA/TOTAL	15.110.000,00	15.245.000,00	%0,89

Erabilgarri dauden baliabideen bilketa arintasunez eta maiztasunez egitean, gastuak garaiz ordain ditzakegula esan daiteke; beraz, uste dugu urte osoan ez dela tentsiorik edo desfaserik gertatuko Diruzaintzan, beti ere UFFaren aurreikuspenak beteko balira, Covid-19aren eraginez, 2020an baino 628.407€ gutxiago aurreikusi direlarik eta 1.242.140€ko mailegua eskatzen badugu.

3.- ONDARE EGOERA

2021. urterako ez da aurreikus inolako ondare ondasunen besterentzerik.

4.- AURREKONTUA ERATZEKO KONTUAN HARTU DIREN IRIZPIDEAK ETA HORREKIN LORTU NAHI DIREN HELBURUAK **UDALAREN 2021KO AURREKONTUAK – IRIZPIDEAK ETA ARRAZOIAK**

Azkoitiko Udal Gobernu honen 2021ko aurrekontuak, 2019-2023 legealdiko bigarrenak izan go dira eta 2020an Covid-19ren pandemiaren eragina ere nabarmenduko nuke. Legealdi Plan bat bideratzen ari ginen 2020haseran eta Martxoan Covid19ak hau zuzendu eta beste hainbat alor aztertzea ekarri digu, batik bat Foru Fonduaren jetsiera zati baten konpentsatze aldera. Horretarako Uztailean, Ez Ohiko Pleno bat egiñez, 2020ko Aurrekontuan egokitzapen batzuk egin beharrean aurkitu ginen.

2020ko Azaroan Udal Foru Arau baten ondorioz, Udalek bete behar dituzten Egongortasun, Iraunkortasun, Zorpetze eta Gastu Arauaren bete beharrak bertan behera gelditu dira 2020 eta 2021eko ekitaldietara begira. Honek baita, Udalei Zorpetzeko aukera ekarri digu eta ikusita aurrera begira ditugun hainbat proiektu, aipatzekoa, Igerileku berria eta Floreagako Irisgarritasuna, 2020an 1.800.000€ko mailegu bat eskatzea onartu da.

Hau guztia kontuan hartuta, 2021erako Udalak 15.245.000€ aurrekontua izango du, hasera batean iazkoa baino zertxobait altuxeagoa, %0.89. Kontuan eduki behar da 2021erako 1.242.140€ ko mailegu berri bat aurreikusten dugula, lehengo urtekoa baino ia 700.000€ gehiago, beraz 2021erako Ohiko Sarrerak gutxiago aurreikusten ditugu. Nabarmentzeko Foru Fonduaren jetsiera, 628.407€.

Azken urteetan bezala, Tasa eta Zerga gehienetan (OHZ eta Gizarte Zerbitzuetako Tasa batzuk ezik) KPIa igo dugu

Udal Gobernuak bere Aurrekontua Azaroak 26an aurkeztu zuen eta ondoren beste Alderdien ekarpenak izan ditu.

Gastu eta inbertsioei agokionez aurtengo lehentasunak hauek dira:

Led argiteria
Baserrietara internet konexio
Kale eta espaloien txukuntze eta konpontzea
Txakon Errekan Gipuzkoako Urakekin hitzarmena
Ekonomia eta enpleguaren suspertzea Iraurgi Berritzenen eskutik..
Udal zerbitzuentzat lokalen egokitzapena
Berdintasuna.
Gizarte Ongizatea
Merkataritza eta ostalaritza.

OGASUNA ETA PERTSONALA:

2021erako langileen soldatak %0,9 igotzea aurreikusi da. Igoera Estatuko legeak ahalbidetzen duenean egikarrituko da.

Bestaldeesan, Prebentzio eta Berdintasunko teknikaria, programa bidez 2020an %50eko lanaldian hasi zena, 2021erako %70 igotzea aurreikusi da.

HIRIGINTZA:

2020arekiko %33,03ko jeitsiera izan du, guztirea 541.100€ aurreikusi direlarik. Aipatzekoak Hainbat Proiektu, Asfaltatze lanak, Irisgarritasun aukeren azterlana San Martin, Egoitza eta Hilerrian, Txalon Errekan egin nahi de eskuhartzea Gipuzkoako Urakekin elkarlanean eta GAZteen Parkea, nahiz eta partida jeitsi, gerakina erabiliz haundiko duguna eta 2021 egikaritzea nahi dena.

Udal zerbitzuak egokiago emateko ere bi lokalen egokitzapena aurreikusten dugu.

LANAK ETA ZERBITZUAK

2020ko aurrekontuarekiko jarraipena aurreikusten da. Nabarmentzekoa Ondare programan dugun Gazteentzako Alokairu Dirulaguntzak, beste kolektibo batzuei ere zabaldu egingo dizkiegula.

SUSTAPEN EKONOMIKOA:

Ekonomia suspertzeko Udalak duen tresna garrantzitsuenetarikoa Iraurgi Berritzen da, , Azkoitia, Azpeitia eta Zestoako udalen Garapen eta Berrikuntza Agentzia. Garapen agentziak, Udalak horrela eskatuta, lehentasun bezala dute Enpleguaren sustapena, batik bat orain Covid 19ak izan duen eragina eta gero. Baita nabarmendu Urol-eKin egitasmoa, bazterkeri arriskuan dauden personak laneratzekoa. Garapen agentziari egin beharreko ekarpena 2020koa baino zertxobait haundixeagoa da, Zestoako ekarpenaren %25eko egiteko konpromisoa hartu genuelako.

Merkataritza eta ostalaritza arloan partidak handitu ditugu, 2020ean bezala , ekintza eta dirulaguntzekin jarraitu ahal izateko.

KULTURA ETA GAZTERIA:

Kulturan eta gazterian iazko aurrekontu berdina dugula esango genuke. Sektore honetan Covid 19ak gogor jo du eta 2021erako 2020ko konpromiso bera mantentzen da.

KIROLA ETA FESTAK

% 16,76ko igoera aurreikusi da. Elkargunera egin beharreko ekarpena nabarmen igotzen da, Covid 19ak izan duen Elkarguneko bazkideen bajak dakarren sarreraren jeitsiera konpentsatu ahal izateko. Festei dagozkien partidak mantentzen ditugu.

ONGIZATEA

Ongizatean % 3,32ko hazkundea izan du aurrekontuak. Aniztasun eta Inmigrazioako partidak zertxobai jeitsi eta beharrak ikusi direnak haundituz. Nabarmentzekoak, Etxeko Zaintza Bermatzeko Egitasmoak, Gizarteratzea, Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuen Mapa.

ALKATETZA

2021erako Memoria Historiako lantzeko partida berri bat jarri da.

EUSKARA

Euskararako partidak mantendu egin dira,

INGURUMENA

2021erako %7,07ko jeitsiera aurreikusi da . Nabarmentzekoa Mankomunitatera egin beharreko ekarpenak izan duen jaitsiera. Bestalde Ingurumen Arloko hainbat ekintzetarako partidadak igo dira, batik bat Ibaietako Saretxoak jartzeko eta Ibai eta erreken garbiketarako.

Bukatzeko, naiz eta aurrekontuan isladarik ez izan, 2021ean Kultur talde eta eragileei bideratzeko inkesta bat landu eta Gizarte Zerbitzuetan ditugun dirulaguntzen azterketan bat ere egin nahi da. Gerakina erabiliz, Floregako 2. Fasearekin jarraituko 2021ean.

5.- AURREKONTUAREN EDUKIA

Jarraian, 2021 Urteko hasierako nahiz behin betiko aurrekontuari dagokionez, bai sarreretan ba igastuetan emandako aldaketarik garrantzitsuenei buruz jardungo dugu, kapituluka.

GASTUAK

1. KAPITULUA: Hasierako aurrekontuari dagokionez %5,85 igo da eta egungo aurrekontuari dagokionez, berriz, %12,69 igo da .

Langileen eranskinak soldata era horretan burutu dira, %0,9ko igoera aurreikusiz.

Kontuan eduki behar da lanpostuen balorazioa gauzatu dela 2020.urtean eta prozesu honen emaitza islatu da pertsonalaren eranskinetan.

2. KAPITULUA: Hasierako aurrekontuari dagokionez %2,98 igo da, eta %3,74 murriztu da egungoari dagokionez.

Kapitulu honetan gastua 2020ko ildo berean aurreikusi da.

3. KAPITULUA: %31,17ko murrizketa hasierako aurrekontuarekin alderatuta eta %14,28ko igoera, 2020ko aurrekontuaren aurrelikidazioaren gainean.

2021ko ekitaldirako, interes tasak egungo minimoetan mantentzea aurreikusten da, baina 2020an mailegu berria onartu denez, zorraren igoera dago..

4. KAPITULUA: %0,29ko hazkuntza hasierako aurrekontuari dagokionez, eta %11,19 igo da egungoari dagokionez.

Kapitulu honi dagokionez, 2020-2022 diru-laguntzen plan estrategikoan onartutako lerroak jaso dira aurrekontuan eta bertan lortu nahi diren helburuak eta ondorioak zehazten dira.

Orokorrean Kirol eta Kultur taldeen dirulaguntza gehien-gehienak bere horretan geratu edo gehitu egin dira.

Bereiztu egin dira Udalak Zubiaurre Elkargune Erakundeari egiten dizkion dirulaguntzak arloka bereiztuz, gazteria eta kirolarentzat hain zuzen. Kirol arloan, Elkarguneri egiten zaion dirulaguntza nabarmen igo da Covid-19ak sortuko ondorioengatik.

Mankomunitateari egiten zaion ekarpena jeitsi egin da.

5. KAPITULUA: Hasierako aurrekontuarekin alderatuta ez dago aldaketarik eta % 17,32ko jeitsiera egungora dagokionez. Soilik kreditu globala du barne.

6. KAPITULUA: Hasierako aurrekontuari dagokionez % 22,67 jaitsi da, eta % 59,34 murriztu da egungoari dagokionez.

Aurreikusten diren inbertsio garrantzitsuenak memoria honen 4 atalean zehaztu dira.

8. KAPITULUA: 12.000 €ko zuzkidura du

9. KAPITULUA: Hasierako aurrekontuari dagokionez %2,62 igo da, eta %1,1 egungoari dagokionez.

Zorpetze portzentajea ez da murrizten 2020an mailegu berri bat eskatu delako eta 2021eko aurrekontuan beste bat aurreikusten delako

SARRERAK

1. KAPITULUA: % 1,09ko igoera izan du.

2020ko Ordenantza fiskalen onarpenaren ondorioz aurreikusten diren sarrerak zehaztu dira zergetan, beti ere zuhurtzia printzipioa oinarria izanez.

2. KAPITULUA:%15 jaitsi da.

3. KAPITULUA: %0,09 igo da.

2020ko Ordenantza fiskalen onarpenaren ondorioz aurreikusten diren sarrerak zehaztu dira zergetan, beti ere zuhurtzia printzipioa oinarria izanez

4. KAPITULUA: % 6,79 jaitsi da.

Nabarmendu behar da Foru Aldundiak Covid-19 pandemiaren ondorioz, aurreikusten duten jaitsiera. 8.446.367,00 izatetik 2020ean 7.817.960,00€ izatera pasa da 2021 ean.

5. KAPITULUA: %30,61eko jaitsiera dago.

6. KAPITULUA: Kopuru berbera aurreikusten da, 2020an gauzatu ez zenez Ibarria enpresarekin akordioa.

7. KAPITULUA: %44,83ko igoera dago. Irisgarritasun dirulaguntzetan Udal Arkitektoak txostena egin du Floreagako igogailuari buruzkoa.

8. KAPITULUA: Berdin mantentzen da kapitulu hau

9. KAPITULUA: 1.242.140€ko mailegua aurreikusten da eta egin nahi diren inbertsioak kontuan hartuz, 2021 bukaeran eskatzeko asmoa dago.

Azkoitia, 2020ko abenduaren 18a.

ALKATEA

Sin. Javier Zubizarreta Zubizarreta

INBERTSIOEN MEMORIA

Antolakuntza Batzordea. Informatika ekipoakerosteko partida 6.000€tara igo da.

Hirigintza Batzordea. Nabarmentzekoak bideak asfaltzeko partida, 200.000,00€tako.

Gazteentza, parkour, kalistenia eta skatepraktikatzeko parkerako 78.000€ jarri da eta falta dena 2020ko gerakina erabiliz osatuko da.

65.000€ jarri ditugu hainbat lanen proiektuak egiteko. Honez gain Gipuzkoako Urakekin Txalon Errekan gauzatu behar diren lanak bideratzeko 58.100,00 €tako partida jarri da.

Lan eta Zerbitzuak Batzordea: Dagoen beharra handia dela-eta, landa guneetan inbertsioak egiten jarraitzen da eta 2020rako 50.000€-ko partida jarri da baserri bideak eta auzoakerritzeko.

Hala ere landa guneetan egingo den inbertsiorik garrantzitsunea internet sarea baserri guztietara eramatea izango da. Hau 2021 eta 2022an egingo da eta urtero 100.000 €ko partida jarriko da. Seguruenik Aldundiak inbertsio honen erdia finantzatuko du baina seguru ez dakigunez zuhurtziaz ez da sarreraren aurrekontuan islatu.

Herri argiterian led bonbillak jarriko dira . Honetarako 2020. Urtean Udalak konpromiso kreditua onartu du 2022 urte arte. Bertan inbertsio osoaren kopurua 975.038,36 € izango dira eta honen erdia FEDER funtsetatik jasoko dugula aurreikusten da.

Barandilla ,hirialtzariak eta herribideen ailega erraztasuneko partida bakoitza 30.000€kin jarri da. Parkeetako altzariantzat 10.000€ jarridira.

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Batzordea: Liburutegiko altzariak eta liburuak erosteko 5.000€ eta 9.000€ jarri dira.

Honez gain hainbat partida zuzkitu dira, oso esanguratsuak ez direnak, materialak erosteko eta obra txikiak egiteko

Azkoitia, 2020ko abenduaren 18a.

Alkatea

Izp.: Javier Zubizarreta Zubizarreta